



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2020KO OTSAILAREN 19KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO DOKTORE IKERTZAILE IRAUNKORRAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2020ko urtarrilaren 9ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko doktore ikertzaile iraunkorraren plaza betetzeko (2020ko urtarrilaren 27ko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Leioako Errektoregoko Deialdi eta Lehiaketen Ataleko iragarki ohelean eta campusetako errektoreordetzakoetan ikus daiteke, bai eta unibertsitatearen web orrian ere (<https://www.ehu.es/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Lehiakide kanporatuek hamar egun balioduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiak jakin dezaten.

Leioa, 2020ko otsailaren 19a.

Errektorea

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, errektorearena, 2017/02/03 EHAA).



Izpta.: Inmaculada Guerricagoitia Marina
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea





Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 – D00003-4. Kategoria: Doktore ikertzailea.
Jakintza arloa: Logika eta Zientziaren Filosofia. Saila: Logika eta Zientziaren Filosofia.
Ikastegia: Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna:
Elebiduna (gaztelera/ingeleza). Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: "Gogoaren Filosofia".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: DE JAEGER HANNEKE
NAN: ***2600*

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez